



Esp. kodea: 2023DPRE0001

Gaia: 2024ko UDAL AURREKONTUA
Hasiera eguna: 2023/12/11

OGASUN BATZORDEAREN DIKTAMENA
2023-12-12

2024 EKITALDIKO AURREKONTUAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Udal gobernua aurkeztutako 2024 ekitaldirako aurrekontuen proiektua aztertu eta eztabaidatze prozesua burutu eta gero, hasiera batean, informazio batzorde bakoitzari dagozkion partidak eta gorabehera nagusien azalpenak emanda, aipatu proiektua diktaminatu da Udaleko Osoko Bilkuran gaia jorratzeko.

Gastuen atalari dagokionez, proiektu horrek oinarria du udal sailek egindako eskaeretan, eta sarrerei dagokionez, udalak hartutako erabakietan gehi beste administrazioetatik jasotako informazioetan.

Ogasun batzordean aztertu da 2024 ekitaldirako aurrekontu proiektua, zenbateko hauekin:

2024ko EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA, jarri dena udalbatzarrak onartu dezan, **berrogeita bost milioi zazpi ehun eta berrogeita hamahiru mila, ehun eta hogeita hamazortzi euro eta hirurogeita zortzi zentimokoa da (45.753.138,68 €)**

Aipatutako proiektuaren azalpenak eman eta gero, Ogasun batzordean bozkatu da. Botazioaren emaitzaren arabera, batzordeak aldeko txostena ematen dio proiektuari, EH-BILDU eta PODEMOS-ARRASATE udal taldeetako ordezkarien aldeko botoekin, EAJ-PNV udal taldeko ordezkarien abstentzioarekin eta PSE-EE udal taldeko ordezkariaren aurkako botoarekin, eta Udaleko Osoko Bilkurari proposatzen dio akordio hau hartzea:

- 1.- Hasiera batean onartzea 2024. EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA, barne hartzen dituen dokumentu guztiekin.
- 2.- Espedientea jende aurrean erakustea, interesdunek aztertu dezaten eta bidezkoztat jotako erreklamazioak aurkeztu ditzaten, 15 egun balioduneko epean, jende aurrean erakusteko, iragarria argitaratzen denetik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
- 3.- Espedientea behin betiko onartzea, jende aurrean erakusteko, aldi horretan erreklamaziorik jaso ezean aurrekontuaren aurka.

BATZORDEBURUA

Kodea	K23/01126	Entitatea	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAAA06D1.7.Ja4D			
URL	https://uzi.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAA06D17.Ja4D			
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				